

NIKOMAKORENTZAKO ETIKA
(Laburpena)

Sarrera

Testu honetan, Aristoteles, Estagirako filosofo famatuaren, *Nikomakorentzako Etika* obra aztertu eta laburtzeari ekingo diogu. Aipatu beharra dugu, hasi baino lehenago, gure laburpenak honek aztergaitzat duen obraren egitura antzerakoa izango duela, hau da, Javier Aguirreren euskarazko bertsioa eta Julio Palli Boneten gaztelerazko bertsioak ereduztat izanik, bertan aurkitzen dugun egitura jarraituko dugula Aristotelesen pentsamendua ahalik eta garbien azaltzeko intentzioarekin. Modu honetan, argitu nahi dugu, gure lanean Aristotelesen obran topatzen ditugun 10 liburu ezberdinak atalka landu nahi izan ditugula (liburu konkretu batzuk batera azalduko ditugun arren) egitura honen bidez liburu bakoitzaren ideia nagusiak azpimarratu, hauen analisia ahalbidetu eta hauen arteko erlazioa ahalik eta argian azalarazteko xedearekin. Sarrerarekin bukatuz, azken hora modura aipatu nahiko genuke atal batzuk beste batzuk baino luzeago landu ditugula garrantziaren irizpidea ahal izan dugun hoberen garrantuz eta ulergarritasuna lehenetsiz.

Lehenengo liburua: Zoriontasunaren inguruan

Liburu honetan, autoreak oinarrizkoak izango diren zenbait ideia zehaztuko dizkigu 13 kapitulutan zehar. Lehenik eta behin, lehen lerroetan, autoreak argi eta garbi utziko digu ekintza, ikerketa eta arte orok helburu bat duela, eta helburu horien artean helburu nagusiak (berez nahi diren ongiak) eta menpekoak (beste ongi batzuk eskuratzeko direnak) desberdindu dituzte, berez gauzatu nahi diren helburuak besteen aurrean hobetsiz. Hau behin zehaztuta, Aristotelesek aipatuko digu helburu goren bat existitu ezker, hau zoriontasuna (eudaimonia) litzatekeela inongo dudarik gabe (autoreak zehaztuko du ongi goren hau betea eta nahikoa, hau da, autarkikoa, litzatekeela, hots, berarengatik soilik bizitza desiragarria litzatekeela eta ez lukeela beste ezeren beharrik). Autorearen aburuz, helburu goren hau zientzia praktikoa nagusi eta arau emileari legokioke, hau da, beste zientzia praktikoen helburuak barnebiltzen dituen zientziari, hots, politikari, hau da, politikaren helburua hiriaren zoriontasuna litzateke (aipatu beharra dugu Aristotelesek banakoaren eta hiriaren zoriontasuna era bateratuan ulertzen dituela, hiriarena jainkozkoagoa dela argitzen duen arren). Haren teoriaren lehen ideiak zehaztuta, autoreak haren obraren izaera zehaztuko digu, modu honetan, argituko digu arrazoiak ezberdinei zehaztasun maila ezberdinak dagozkiela, eta zientzia politikoak zehaztasun maila txikia onartzen duenez, hari buruz dioguna era eskematikoan azaldu beharko dela, beti ere materiak onartzen duen zehaztasun mailarik altuena bilatuz.

Behin zoriontasun kontzeptuan murgilduz, autoreak adituko du iritzi ezberdinak daudela eudaimonia kontzeptuaren inguruan, hots, hau era anitzetan esaten dela, hori dela eta, “endoxa”-ren (iritzi garrantzitsuenen) azterketa eta ikerketa dialektikoa (gauza ezaguterrazetatik ezagutzen zailak doan ikerketa) martxan jarriko ditu, ikerketaren abiapuntua guretzako ezagutzen errazenak diren gauzetan jarritz. Ondorioz, autoreak 3 bizimodu nagusi aurkeztu eta aztertuko ditu, hauek, plazeraren arabera (zehaztuko du hau piztien pareko bizimodua dela), politikoa (askotan helburutzat ohorea duena) eta begiespenezkoa (honi buruz ez du kapitulu honetan gehiegi esango) izanik. Puntu honetan iada zehaztuko digu plazera eta ohorea baino ongi askoz gorenagoa dela bertutea eta honen arabera ekintza, hau, besteak beste, gainerako biak baino galtzen zailagoa baita.

Ongiaren gaineko azterketarekin ikerketa jarraituz, Aristotelesek Platonen Ongiaren ideia errefusatuko du, modu honetan, zehaztuko digu ongia era anitzetan esaten dela, badaudela berezko ongiak eta berezkoegi begira bilatzen direnak eta ez duela ematen hauek guztiak barnebilduko dituen ideia bakar eta orokor bat existitzen denik, hortaz gain zehazten digu hau existituko balitz ez dugula inongo interesik honengan, izan ere, zaila da ikustea nola lagunduko duen honen ezagutzak giza jarduera eta ekintza zehatzaren hobekuntzan. Ordea, zoriontasuna zertan datzan jakitea garrantzitsua da autorearentzat, eta hemen, gizakiaren berezko funtzioari begiratu behar diogula zehazten digu, hau da, arrazoiaren arabera aktibitateari (ez dira gizakiaren berezkoak funtzio nutritiboa eta sentitiboa, izan ere, hauek beste bizidun batzuk ere badituzte). Era honetan, Aristotelesek, aurrerago esandakoa barnebilduz, zehaztuko digu zoriontasuna bertutearen arabera arimaren aktibitatea izango dela (bizimodu hau berez izango da atsegina eta ez du plazera gehigarri bezala beharko). Hala ere, autoreak 3 ongien arteko bereizketa egingo du, hau da, kanpoko, gorputzaren, eta arimaren ongien artekoa, eta zehaztuko du arimaren garrantzitsuenak diren arren

zoriontasunak kanpo ongi minimo batzuen premia duela. Baieztapen horrek hurrengo gai batera eramango du autorea, hain zuzen ere, zoriaren eta kanpo ongien auzira, bertan autoreak zehaztuko digu zoriontasuna bezalako ongi goren bat ezin daitekeela izan ez patuaren ez zoriaren mendekoa, hortaz, hura gauzatzeko aukera baita ardua gizabanakoan eta honen izaera kokatuko du (hau hobe ikusiko dugu bigarren liburuan). Bestalde, zehaztuko digu bertutei laudorioa dagokiela, baina, ordea, zoriontasuna, bikainagoa den heinean, ohoragarria dela eta ez ordea laudagarria. Azkenik, arimaren atalak aurkeztuko dizkigu (hau garrantzitsua da, izan ere, autoreak iada zehaztu du giza bertutea arimarena dela, ez ordea gorputzarena), zehaztuz, lehenik eta behin, arimak haren alde irrazionala eta arrazionala dituela, modu honetan, arimaren bi atal, hots, begetatiboa (nutrizioaz eta hazkuntzaz arduratzen da eta guztiz irrazionala da) eta apetitiboa (arimaren zati hau irrazionala da bere, ordea, arrazoimenari entzun eta honi men egin diezaioke) alde irrazionalaren parte lirateke eta hirugarren atala arrazionala litzateke. Aristotelesek, puntu honetan, bertuteak bitan ezberdinduko ditu eta zehaztuko du bertute etikoak arimaren zati apetitiboarenak direla, eta, ordea, dianoetikoak zati arrazionalarenak edo adimenezkoak.

Bigarren liburua: Bertute etikoaren natura

Aristotelesek, iada, bertute dianoetiko eta etikoa bereizita azken hau ikertuko du hurrengoko orrialdeetan zehar. Hasteko, zehaztuko digu bertute etikoa ohiturarekin duela zerikusia eta errepikapenez sortzen dugun aztura bat dela, hortaz gain, ez dela agertzen guran naturaz, baizik eta gure dispozizio naturalak moldatzeko balio duela. Autoreak argituko digu, bertutea den aztura hori sortuko edo suntsitu dezakeen printzipioa ekintza dela, eta hortaz, hori nolakoa izan behar den zehaztu beharko dela. Aurrerago, aipatuko digu bertute etikoa erdiko terminoarekin identifikatzen dela eta hortaz erdiko terminorantz joko duten ekintzekin. Honetaz gain, bertute etikoa, zati apetitiboari buruzkoa den heinean, plazer eta atsekabeei buruzkoa dela zehazten digu autoreak. Aurrera eginez, ekintza bertutetsuaren baldintzak zehaztuko dizkigu, hauek, ekintza ezagueraz egin izana, hau hautatu izana eta honi tinko eta iraunkor jardutea (hots, behin soilik egin den eta jarraikotasuna ez duen ekintza bat ez izatea) izango dira hain zuzen ere, honetaz gain autoreak zehaztuko du bertute hauek lortzeari begira ezagutzak garrantzia txikia agertzen duela, ordea, aurrerago zehazturiko 3 baldintzek erabatekoa, eta hortaz, 3 baldintza hauek jarraitzea pertsona bertutetsuen ekintzak imitatuz bertute etikoa lortzeko bide zuzena litzatekeela. Autoreak bertute etikoaren generoa aztura dela zehaztuko digu, hau ariman ematen diren beste 2 gauzetatik, hots, pasio eta ahalmenetatik ezberdinduz. Honetaz gain, erdiko terminoaren natura argituko du hau gehiegikeriaren eta gabeziaren artekoa dela zehaztuz, ordea, adituko du erdiko terminoa bi eratan uler daitekeela, era aritmetikoan edo subjektuari dagokionez (hots, pertsonaren araberakoa), hemen zehaztuko du bertute etikoari dagokionez bigarren era horretan ulertu behar dela erdiko terminoa eta, beraz, bertute etikoa subjektuari dagokion erdikotasunean datzan nahita hautaturiko aztura bezala defini dezakegula. Hau argi utzita zehaztuko digu bertutea gehiegikeriaren eta gabeziaren artekoa dela baina gabezia edo gehiegikerian, hots, ekintza zitalean, ezin daitekeela topa erdiko terminorik erdiko terminoan gehiegikeriarik edo gabeziarik topa ezin daitekeen bezalaxe (modu honetan, adulterioa bezalako ekintza zitalak ez du inoiz izango erdiko terminorik edo gauzatzeko modu zuzenik). Aristotelesek zehaztuko digu bai gehiegikeria, bai gabezia (aztura biziotsuen sorburu eta oinarri direnak) erdiko terminoaren eta bertutearen kontrakoak direla, baina askotan mutur bat bestea baino kontrakoagoa dela. Hau bi arrazoiengatik gertatzen da, alde batetik, erdiko terminoa berez mutur batetik hurbilago egon daitekeelako bestetik baino (adibidez adorea kasuan, koldarkeria askoz urrunago dago erdiko terminotik ausarkeria baino, eta bestetik, joera natural handiagoa dugulako mutur batekiko (adibidez, neurritasunaren kasuan, izatez joera natural handiagoa dugu plazeraren gehiegikeriara gabeziara baino).

Hirugarren liburua: Ekintza borondatezkoak eta nahi gabekoak. (Eta VII. Liburua (labur))

Hirugarren liburu hau ekintza nahi gabekoak eta borondatezkoen izaera zehaztuz hasiko da. Modu honetan, autoreak, zehaztuko du ekintza nahi gabekoak indarkeriaz (hots, printzipioa kanpoan duten horiek, eta printzipioa den moduan egileak eta hartzaileak ez diotenean ezertan delako horri laguntzen) eta ezjakitez (banako ekintzaren baldintzen eta objektuaren ezjakintasuna suposatzen dutenak) egiten direnak liratekeela, azken hauek ez ditu identifikatzen hautapenaren inguruko ezjakintasunarekin (bertan mozkorren adibidea topatzen dugu), izan ere, hau zitalkeriaren iturri litzateke eta ez nahi gabeko ekintzena. Aipatu beharra dago ere, ezjakinezko ekintzen artean “nahi gabekoa” (egiten duenarengan atsekabea eta damua dakartzana) eta

borondaterik gabekoa (ekintzak eragilean damua eta atsekabea eragiten ez duenean) bereizten dituela. Hortaz, hauek zehaztuta, borondatezko ekintza printzipioa pertsonan baitan izanik honek banako ekintzaren baldintzak ezagutzen dituenean emango litzateke. Hauetaz gain ekintza mistoak existituko lirateke (hauetan ekintzaren printzipioa subjektuan dago baina kanpoko egoera edo baldintzak muturrekoak dira), zeinak zentzu absolutuan nahi gabekoak lirateke (inork ez litzukeelako berez hautatuko), baina Aristotelesek borondatezkoen barruan kokatzen ditu hauek printzipioa subjektuan duten heinean eta hauek borondatezkoak bezalaxe laudagarriak edo gaitzesgarriak diren heinean (nahi gabeko ekintzak ez dira inola ere laudagarriak edo gaitzesgarriak). Hau horrela izanik, oso garrantzitsua izango da hautapena, hausnarketa eta gogoia definitzea azaldu dugun eskemaren bidetik jarraitu nahi ezker. Modu honetan, autoreak zehaztuko digu hautapena borondatezkoa dela baina borondatezkoa den oro ez dela hautapena, era berean azalduko digu hautapena ez dela bulkada, gogoia edo iritzia (hautapena desira hausnartua litzateke). Hausnarketari dagokionez aipatuko digu hau beste era batera izan daitezkeen eta gure esku dauden gauzen ingurukoa dela, ez betiereko gauzen ingurukoa. Aipatu beharra dago hautapena eta hausnarketa bitartekoena direla, eta gogoia, ordea, helburuena. Gogoari dagokionez Aristotelesek zehaztuko digu gizaki bertutetsuarentzat benetako ongia izango dela gogoaren objektua, ziztrinarentzako edozer izan daitekeen bitartean. Autorearentzat 3 elementu hauek definitzea garrantzitsua da, hain zuzen ere, geroago zehazteko, bai bertutetsua, bai biziotsua izatea gure esku dagoela. Izan ere, Aristotelesek zehazten du aztura sortzen duen ekintza (aztura ekintza bat errepikatuz sortzen da) hausnartu eta hautatu dezakegula eta berezko ongi edo gaizki hori (ekintza hori) gure gogoaren objektu bihurtu, eta hortaz, bizioa edo bertutea eskuratzea gure esku dagoela. Hurrengo lerroetan autoreak bertute etiko ezberdinak haien esparru zehatzetan aztertuko ditu, izan ere, Aristotelesentzat bertute bakoitzak esparru zehatz bat du non, eta hor bakarrik, bertute konkretua sor, suntsi edo jardun daitekeen, hori dela eta 3. liburuaren amaieran eta 4. liburu osoan zehar bertute etiko ezberdinak aztertuko ditu haien esparru zehatzetan.

Bostgarren liburua: Zuzentasunaren inguruan

Aristotelesek, liburu hau, zuzentasuna eta zuzengabekeria era askotan esaten direla zehaztuz hasten du. Hori dela eta, autoreak, zuzentasunaren zentzu ezberdinak zehazteko hauek eta haien kontrakoak direnak aztertuko ditu. Modu honetan, zehaztuko du, zuzena deritzoguna legeak betetzen dituen eta baita berdinkoia denari esaten diogula, zuzengabea, ordea, legeak hautsi eta baita ezberdinkoia denari. Autoreak argituko digu, legeari dagokionez hitz egiten dugunean, elkarte politikoan zoriona edo horren osagaiak sortzen eta babesten dituzten gauzei deritzegula zuzenak, eta era honetako zuzentasuna ez litzatekeela hortaz bertutearen zati bat, bertute osoa baizik, hori bai, hau besteekikoa den neurrian, izan ere, justizia besteekiko erlazioan ematen da. Ordea, hurrengoko lerroetan, autoreak zehaztuko digu hemen bertutearen zati den (eta ez bertute osoa) zuzentasuna ikertzea interesatzen zaigula, hau da, zuzentasun partikularra (justizia osoaren zati dena). Zuzentasun partikular honen bi espezie justizia banatzailea (estatu baten kideen ohoreen, ondasunen eta banatu daitekeen gauza guztien banaketaren zuzentasuna da) (honetan justiziaren erdiko terminoa proportzioa izango da eta berdintasuna proportzioaren arabera lortuko da, modu honetan zuzena proportzionala dena izanik eta zuzengabea proportzioaren aurka dioana) eta zuzentasun zuzentzailea (gizakien arteko itunak zuzentzen dituen) (hau proportzioaren arabera ez, baiziki eta berdintasun aritmetikoaren arabera gauzatuko da, zuzentasun zuzentzailea etekinaren eta kaltearen arteko erdiko terminoa izango da)(gizartean epaileak hezur-mamitzen du justizia mota hau) lirateke, azken horretan borondatezko itunak (salmenta, erosketa...) eta nahi gabekoak (lapurreta, hilketa...) bereizten ditu autoreak. Honetaz gain, autoreak zehazten digu truke-harremanetan proportzioaren arabera elkarrekikotasunak gauzatzen duela zuzentasuna eta hau moneta, hau da, neurgailu bakar eta konbentzizko horren eta honen arabera tasazioaren bidez gauzatzen dela gizarteetan. Obran aurrera eginez, autoreak zuzentasun politikoari dagokionez zehaztuko du hau autarkiari begira bizikidetzaren duten gizaki libre eta berdinen artean, proportzioaren nahiz aritmetikaren arabera gauzatzen dena dela, puntu honetan zehaztuko du hau hirikideekikoa dela eta ez etxekoekikoa, izan ere, semea eta ondasuna norberaren parte dira eta norberarekiko zuzengabekeria ez da existitzen (hau soilik metaforikoki existitzen da). Hau zehaztuta, autoreak zuzentasun naturala eta konbentzizkoaren ezberdintasuna adieraziko du, aipatuz, konbentzionala lege zehatz batzuen bitartez ezartzen dena dela eta naturalari begira osatzen dela, naturala, berriz, unibertsal dena da. Ezberdintasuna hau argi ikusten da zintzotasuna aztertzen dugunean, zeina lege konbentzionalaren zuzenketa den, zuzentasun naturalaren unibertsaltasunagatik zerbait alde batera geratzen den heinean (aipatu behar da

zintzotasuna aztura bat dela). Hau zehaztuta, aipatu behar dugu Aristotelesentzat berezko ekintza zuzengabeak eta zuzenak borondatezko eta ekintzaren jatorria ekintza gauzatzen duen subjektuan jatorria dutenak direla (iada definitu da III. liburuan zer den ekintza borondatezko bat), eta ekintza hauek aurrera eramaten dituen izango dela haien erantzule dena, ez ordea ekintzaren hartzailea. Hortaz gain, kalteen kasuan autoreak 3 motatakoak bereizten ditu, ezjakinez eta deliberatu gabe egiten direnak (hauek akatsak izango dira eta ez zuzengabekeriak), jakinez baina deliberatu gabe egiten direnak (ekintza zuzengabeak dira baina egilea ez du zertan zuzengabea izan) eta jakinez eta deliberatuta egiten direnak (hauek ekintza zuzengabeak eta zitalak dira eta ez dira barkagarriak).

VI. liburua: Adimenezko bertuteen ikerketa

Aristotelesek, liburu honen lehen lerroetan, zehazten digu bertute etikoaren erdiko terminoa zehazten duen hori arrazoi zuzena dela, eta hortaz, hori zer den zehaztea komeni dela. Arimaren analisisira berriz joz, autoreak zehaztuko digu arimaren zati arrazionalak bi alde dituela, bata zientifikoa (bestelakoak izan ezin daitezkeen printzipioak dituzten gauzak ezagutzen dituen) eta deliberatzailea (gauza kontingenteak ezagutzen dituen). Arima arrazionalaren 2 alde hauek bi genero ezberdinetako gauzak ezagutzen dituzte, eta hortaz, hauek ere genero ezberdinetakoak izango dira (arimaren zati bakoitzak haren generoarekin bat datorren objektua ezagutuko du). Autoreak zehaztuko du alde horietako bakoitzari dagokion bertutea aztertu beharra dugula, eta, hortaz gain, adieraziko digu bi adimenezko aldeen zeregina egia dela, eta, hori dela eta, haien bertuteak alde bakoitzean egia burutzea erdiesten duten horiek izango direla. Bertute dianoetikoak aztertzen hasiz zehaztuko digu hauek artea, zuhurtzia, zientzia, jakinduria eta adimena direla (lehen biak poietiko-praktikoak eta hurrengoko hirurak teoretikoak). Zientziari dagokionez zehaztuko du hau arima arrazional teoretikoaren aztura bat dela, hortaz gain, aipatzen du indukzioaren bidez haren egiak ezagutu ditzakegula eta silogismoen bidez zientzia irakatsi, modu honetan zehaztuko du zientziaren aztura erakuslea dela. Arteari dagokionez aipatuko du hau sorkuntzaren ingurukoa dela eta ez ekintzaren ingurukoa, zehaztuko digu artea nolabaiteko egiazko arrazoiaren arabera aztura sortzaile bat dela, beste era batera izan daitekeen horri buruzkoa. Zuhurtziaren gainean mintzatuz, aipatuko digu, hau ekintzari buruzkoa dela eta ez ordea sorkuntzari buruzkoa, hori zehaztuta, adieraziko du zuhurtzia egiazko eta arrazoizko aztura praktikoa dela gizabanakoarentzako ongiari eta gaizkiari buruzkoa. Adimena zertan datzan zehaztean, zehaztuko du hau printzipioekin lotzen dela, baina ez zientziaren era demostratiboan, baizik eta printzipioen ulermen moduan. Azkenik, jakituriari dagokionez (hau bertute dianoetiko gorena litzateke), zehaztuko du hau adimena eta zientzia dela, baina, gauza preziatuenen eta naturaz hoberenen zientzia, alegia, honek gorena, aldaezina eta akto purua den legearen zientzia litzateke (bertute gorena da), eta horretaz arduratzen den zientzia metafisika litzateke hain zuzen ere. Hurrengo lerroetan, Aristotelesek jakinduria eta zuhurtzia ezberdinduko ditu zehaztuz jakinduria zuhurtzia baino gailenagoa dela, izan ere, zuhurtzia, giza espeziearen ongiari buruzkoa hain zuzen ere, eta jakinez gizakia ez dela errealitateko gauzarik gorenena, jakituria, hots, gauza hoberenen zientzia hori, zuhurtzia baino gailenagoa izango da (noski, zuhurtziak berebiziko garrantzia du ere, izan ere, ezin daiteke ona izan zentzu gorenean zuhurtziarik gabe, ezta zuhurra bertute moralik gabe).

VII. Liburua: Meneratzea eta meneratzerik eza

Aristotelesek, liburu honetan, haren bertute etikoen gaineko teoria biribilduko duen eranskin bat aurkeztuko digu, eranskin honetan meneratzea eta meneratzerik eza deritzenak landuko dira hain zuzen ere. Bertan, Aristotelesek, adituko du bertute eta bizioaren nozioek soilik ez dutela ondo azaltzen errealitatea, izan ere, bertutetsuak pentsamendu egokia eta desira egokia luke, biziotsuak, ordea, pentsamendu okerra eta desira okerra, ordea, autorea konturatzen da gertagarria dela pertsona batek pentsamendu egokia izan baina desio okerra edo kontrakoa izatea, hau azaltzeko, hain zuzen ere, txertatzen ditu haren teorian aipatu ditugun bi kontzeptuak. Aristotelesek, intelektualismo moralaren aurka, defendatuko du askotan ekintza kaskarraren kausa ez dela ezagutza eza, atal irrazionalaren desira indartsua eta honen gaineko meneratze eza baizik. Kasu horretan jokatuko lukete meneratzeak eta meneratze ezak haien papera, hain zuzen ere, pentsamendua zuzena izan baina atal irrazionalaren desira okerra den kasuetan. Desira irrazional honen iturria sentsitiboa litzateke, konkretuki ukimenaren eta dastamenaren (autoreak sexua eta dastamena ditu buruan) bidezkoiegi egiten die erreferentzia eta meneratzea eta meneratzerik eza hauekin lotuko lirateke (hori litzateke hain esparru zehatza, eta, hortaz, beste gauza batzuei buruz hauen bitartez mintzatzen garenean metaforikoki egiten dugu)(hortaz

gain autoreak zehazten du kasu hauetan desira arrazionalaren eta irrazionalaren talka bat eman daitekeela). Autoreak zehaztuko digu akrasia edo kontrol ezaren arazoak anitzak izan litezkeela, ezagutza unibertsala bai baina partikularra ez izatetik, ezagutza operatibo ez izatera doazenak (azken hau gerta liteke adibidez mozkor gaudenean edo plazer oso indartsu baten aurrean sinismen okerrak sortu eta ezagutza zuzena inoperatibo aurkezten denean). Hori dela eta, autoreak zehaztuko digu meneratzea eta meneratzerik eza, atal irrazionalarekin zerikusia duten heinean, prozesu fisiologiko batekin dutela lotura, baina honek ez gaituela erantzukizunik gabe uzten kasu hau ematen den kasuetan, izan ere, desioa meneratzeko aukera dugu (hau da, aukera hori borondatez hauta dezakegu) eta hortaz ekintza borondatezkoa izango dela. Azkenik zehaztu beharra dugu meneratzea eta meneratzerik ez direla azturak (neurritasunaren esparru zehatz bera dute, baina, neurritasuna ez bezala, bi hauek ez dira azturak), baina aztura sor daiteke behin eta berriz ekintza meneratuak edo meneratu ezak gauzatu, hau da, bizio edo bertutea sor daiteke haien bidez.

VIII. eta IX. liburuak: Adiskidetasunari buruz

Liburu hauetan Aristotelesek laguntasuna eta haren formak aztertuko du, laguntasun forma ezberdinen kausak aztertuz berez ona izateagatik maite den laguntasuna, atsegin iturria izateagatik maite dena, eta erabilgarria izateagatik maite dena identifikatuko ditu. Honetaz gain, aipatuko du berez ona den laguntasunak atsegin iturria eta erabilgarria izatea suposatzen duela, ordea, hau ez da alderantziz gertatzen eta atsegin iturria edo erabilgarria den laguntasunak ez du suposatzen berez hona izatea. Arrazoibide honetatik tiraka laguntasun naturala (adiera hertsian esaten dena) eta akzidentala (adiera zabalean esaten dena) ezberdinduko ditu, lehengokoaren isla laguntasun berez ona, berez atsegina eta bertutetsua (berez onak direnen artean soilik eman daiteke) izanik, eta bigarrenarena, soilik atsegin iturri edo erabilgarriak diren laguntasunak. Aipatu beharra dago, autoreak familia eta gizartea laguntasun akzidental moduan definituko dituela, izan ere, hauetan helburu komun bat erdiesteko batzen garelako (gizarte forma familien batasun moduan ulertzen du). IX. liburuan, berezko laguntasunari buruz hitz eginez, autoreak laguna “beste nia” bezala definituko du eta zehaztuko du laguna maitatu, haren existentziagatik poztu, harekiko enpatia izan eta harekin elkarrekin denbora pasatzen dugula besteak beste. Zehaztuko digu laguntasuna kanpo ongi garrantzitsuenetariko dela modu onenean bizitzen baikara gure antzekoak direnekin. Arrazoibide honetatik jarraituz, zehaztu beharra dugu, Aristotelesentzat, laguntasunaren oinarria norberarekiko maitasuna dela, eta soilik ona dena eta hortaz haren burua maite duenak maite ahalko ditu lagunak (beste “laguntasunei” metaforikoki deitzen diegu horrela), ordea, norberarekiko maitasun hau benetakoa eta arrazoimenaren bidezkoa izan beharko da, bestea berekoikeria litzateke eta hura injustiziaren iturri da, ez laguntasunarena.

X. Liburua: Pazera eta zorientasunaren natura. (Eta VII. liburuko azken zatia: Plazeraz)

Puntu honetan, Aristotelesek planteatzen digun plazeraren teoria aurkeztuz hasiko gara. Aristotelesek zehazten digu plazera ekintza bat osatzen duen hori litzatekeela, haren aburuz plazera ez da ekintza bera, ez prozesua, ez generazioa. Autorearentzat, plazera helburu baten moduan funtzionatzen du eta funtzio hori gauzatzeko beharrezkoa da plazeraren eta ekintzaren arteko lotura hautsiez in bat egotea, ekintza baten erabateko gauzatzeak plazera ematen du eta plazerak ekintza erabateko gauzatzera mugitzen du. Hortaz gain, zehazten digu ekintzaren forma aldatzen denean plazera ere aldatzen dela, eta hortaz, plazer onak eta txarrak egon daitezkeela ekintzaren formaren arabera. Autorearen aburuz, zorientasunera heltzeko, plazera gizakiaren berezko funtzioaren arabera izan behar da (bizitza zorientatsua berez da atsegina), izan ere, zitalak beste edozerena topa dezake plazera. Arrazoibide honetatik ondorioztatzen da plazera bere horretan ez dela ez ona ez txarra, baizik eta ekintzaren formaren arabera dela, eta hortaz, gizakiaren berezko funtzioari begiratu, esan daiteke gizabanakoari dagozkion (haren berezko funtzioaren arabera direnak) eta ez dagozkion plazerak daudela. Gizakiaren berezko funtzioaren aritiko joz, autoreak planteatzen digu, zorientasuna, hots, bertutearen arabera ekintza eta bizitza, kontenplazioan eta jakiturian (hau bertute dianoetiko gailena da) topa dezakeela haren oinarri nagusia (beste bertute eta ongi asko ere beharrezkoak diren arren) (hau ez dator guztiz bat politikan esaten denarekin, zeinetan zehazten den zorientasunaren praktika gorena politika litzatekeela, hala ere, ustezko kontraesan honetarako bide ezberdinak planteatu dira, adibidez, bizitzan kontenplazioa baina baita politika jardun behar direla esaten duenak).

Bibliografia

- Erderazko itzulpena: Pallí Bonet, Julio. *Etica a Nicomaco* (2018). Gredos. Barcelona
- Euskerazko itzulpena: Aguirre Santos, Javier. *Nikomakorentzako Etika* (2001). Klasikoak bilduma. EHU/UPV.

Mikel Asteinza Arteche.